

## **BERGARAKO UDALA**

### **Begarako Adineko Pertsonen Kontseilua arautzeko araudiaren aurretiko kontsulta**

**Begarako Adineko Pertsonen Kontseiluaren funtzionamendua arautzeko araudiaren proiektua martxan jarri da.**

#### **Egin eta izapidetu nahi den proiektua azaltzeko memoria**

Begarako Udalak, Gizarte Zerbitzuen Departamentutik, Adineko Pertsonen Kontseilua sortu, bertan parte hartzeko baldintzak finkatu eta funtzionamendu-arauak zehazteko udal arautegia onartzea sustatu nahi du.

Hori dela-eta, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 133. artikuluan ezartzen duena betetzeari begira, egin eta izapidetu nahi dugun proiektua azaltzeko, memoria hau idatzi da.

#### **Ekarpenak egiteko epea**

2023/01/25era arte

#### **Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak**

Arautegi honen onarpenarekin kontseiluaren funtzionamendua arautu nahi da; zehazki, kontseiluaren izaera, helburuak, funtzioak, osaketa, kontseiluko organoak, sartzeko baldintzak, partaide izateari uztea eta funtzionamendua arautuko direlarik; horrela, 185/2015 Dekretuan (urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa) eta Bergara 2030 Plan Estrategikoan jasotakoei erantzuna emanez.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 1.5 fitxan, herritarren parte-hartzeari dagokionez jasotzen du gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzuak udalek eskainiko dituztela.

Bestalde, Bergara 2030 Plan Estrategikoan jasota dago udalak jarraituko duela herritarren parte-hartzea bermatzeko guneak abian jartzen eta izaera iraunkorra dutenak sendotzen.

#### **Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den**

Esan bezala, kontseilua arautu beharra dago. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 5. artikulua dio organo aholku-emaileak sortu daitezkeela; eta bestalde, Udaleko Erregelamendu Organikoak 87. artikuluan, 1 eta 2 puntuetan herritarren parte-hartzea arautzean, honako hau dio:

*1. - Udalak bere jardueraren gaineko informazio zabala emango du eta herriko bizitzan herritarrek parte hartzea bideratuko du.*

*2. - Parte hartze hori bideratzeko baliabide eta prozedurak arau hauetan ezarriko dira: Erregelamendu Organiko honetan, erregelamendu hau osatzen duten Kontseilu Sektorialak arautzeko Erregelamenduetan, eta Begarako Udalak horretarako sortzen duen beste edozein arau juridikotan.*



Azkenik Bergarako Udalak kontseilua arautzeko "erregelamenduak egiteko ahalmena" du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan jasotakoaren arabera.

### **Arauaren helburuak**

Arauaren helburu nagusiak dira kontseilua eta horren helburuak definitzea eta funtsezko alderdiak arautzea: hala nola, funtzioak, osaketa, kontseiluko organoak, sartzeko baldintzak, partaide izateari uztea eta funtzionamendua.

### **Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik**

Adineko pertsonen kontseilua sortzeko ekimena udalarena da eta, behar bezala emateko, arautzea ezinbestekotzat jotzen da; hau da, ezinbestekoa da kontseiluaren funtzionamendua arautzeko dokumentu bat lantzea.

Kasu honetan, erregelamendua irtenbide egokiena da kontseiluaren funtzionamenduak sortutako arazoak eta beharrak konpontzeko.

*Argitaratze-data: 2023/01/12*

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

### **Consulta previa a la aprobación de la Normativa del Consejo de Personas Mayores de Bergara**

**Se ha dado inicio al proyecto de normativa reguladora del funcionamiento del Consejo de Personas Mayores de Bergara.**

#### **Memoria descriptiva del proyecto que se pretende elaborar y tramitar**

El Ayuntamiento de Bergara, desde el Departamento de Servicios Sociales, quiere promover la creación del Consejo de Personas Mayores, establecer las condiciones de participación en el mismo y aprobar la normativa municipal para determinar sus normas de funcionamiento.

Así pues, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se ha redactado la siguiente memoria explicativa del proyecto cuya elaboración y tramitación se pretende.

#### **Plazo para realizar aportaciones**

Hasta el 25/01/2023

#### **Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa**

Con la aprobación de esta normativa se pretende regular el funcionamiento del consejo, concretamente su naturaleza, objetivos, funciones, composición, órganos del consejo, condiciones de acceso, cese de participación y funcionamiento, dando así respuesta a las previsiones del Decreto 185/2015 (de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales) y a las del Plan Estratégico Bergara 2030.

En la ficha 1.5 del Decreto 185/2015 (de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales), en lo que respecta a la participación ciudadana se recoge que los servicios de promoción de la participación e inclusión social en el ámbito de los servicios sociales serán prestados por los ayuntamientos.

Por otro lado, en el Plan Estratégico Bergara 2030 se recoge que el ayuntamiento continuará con la puesta en marcha de ámbitos que garanticen la participación ciudadana y con la consolidación de aquellos de carácter permanente.

#### **Necesidad y oportunidad de su aprobación**

Como se ha dicho, es necesario regular el consejo. La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en su artículo 5 establece que podrán crearse órganos consultivos; y por otro lado, el Reglamento Orgánico del Ayuntamiento, en su artículo 87, al regular la participación ciudadana en los puntos 1 y 2 establece que:

*1. - El Ayuntamiento facilitará tanto la más amplia información sobre su actividad como la participación de todos los ciudadanos en la vida local.*

*2. - Esta participación se articulará a través de los medios y procedimientos que se establezcan mediante el presente Reglamento Orgánico, Reglamentos reguladores de Consejos Sectoriales que forman parte del presente, así como cualquier otra norma jurídica reglamentaria de la que se dote el Ayuntamiento de Bergara para posibilitarla.*

Finalmente, al Ayuntamiento de Bergara le corresponde “la potestad reglamentaria” para regular el consejo, de acuerdo con lo previsto en el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

### **Objetivos de la norma**

Los objetivos principales de la norma son definir el consejo y sus objetivos y regular sus aspectos esenciales, tales como funciones, composición, órganos del consejo, condiciones de acceso, cese de participación y funcionamiento.

### **Posibles soluciones alternativas, regulatorias o no regulatorias**

La iniciativa de creación del Consejo de Personas Mayores es del ayuntamiento, de modo que, para su correcto desempeño, se considera imprescindible su regulación, es decir, la elaboración de un documento que establezca su funcionamiento.

En este caso, el reglamento constituye la solución más adecuada para solventar los problemas y necesidades generados por el funcionamiento del consejo.

*Fecha de publicación: 12/01/2023*